

# RASFF TXOSTENA

---

ALERTAK eta JAKINARAZPENAK

**ELIKAGAIAK**

2012ko LEHENGO LAUHILEKOA

Jakinarazpenen kategorizazioa


Jakinarazpenen jatorria

Kutsadura iturrien sailkapena

Kutsatzaile nagusiak eta eragin gehien duten elikagaiak

### JAKINARAZPENEN KATEGORIZAZIOA


2012ko lehenengo lauhilekoan animalien elikagaiei buruzko **939 jakinarazpen** izan dira. Horietatik **120 alertak** izan dira (%13), **307 informazio-jakinazpenak** (%33) eta **518 mugan** egin diren **ukapenak** (%54).



### JAKINARAZPENEN JATORRIA

Kutsatutako produktuen jatorrizko herrialdeak hurrengoak izan dira:


**Asiari** dagokionez, kutsatzaileen % **25 Turkiakoak** dira, jarraian **India** dugu: kasuen % **24,5**. **Europari** dagokionez, jakinarazpen gehien sortu duen herrialdea **Espainia** izan da, % **14** dira. **Afrikaren** kasuan, **Egiptok**, jakinarazpenen %**23,5** izan ditu. Azkenik, **Amerikaren** kasuan **AEBk** da jakinarazpen gehien sortzen duena (% **33**).



### KUTSADURA ITURRIEN SAILKAPENA

2012ko 1. lauhilekoan zehar, Europako Informazio Azkarraren Sistemak (RASFF) **elikagaien 939 alerta eta jakinarazpen** berri eman du. Jakinarazpen guztietatik, kutsadura iturrirei dagozkien zenbatekoak honako hauek dira:

ZENBATEKOAK	KUTSADURA ITURRIAK
20 %	Mikotoxinak / biotoxinak
10,5 %	Kutsadura kimikoa
17,5 %	Kutsadura biologikoa
5,5 %	Metal astunak
23 %	Hondakinak
3,5 %	OGMak
1,5 %	Kutsadura fisikoa
8 %	Iruzurrak
10,5 %	Produktua gaizki kontrolatuta



### KUTSATZAILE NAGUSIAK ETA ERAGIN GEHIEN DUTEN ELIKAGAIAK

Mikotoxinek eragindako kutsaduren artean, kasu gehienetan, % 82an, kutsadura **Aflatoxinek** eragindakoa da eta, horrelakoetan **kakahueteak** kutsaduren % 37 eragin du. Bestalde, kasu gehienetan (% 80,5) kakahuetea **Asiatik** zetorren. Bigarren lekuan, **pikuak (%19)** eta bere jatorria **Turkia (100%)**.

Kutsadura biologikoei dagokienez, *Salmonella sp.k* kutsaduren % 50 eragin ditu. Lauhileko honetan, eta ez dago produktu nabariagorik, denak kopuru berdintsuan azaldu dira.

Kutsadura kimikoari dagokionez, **Gehigarriak eta Koloratzaileak** dira eragile nagusi (kasuen % 39) eta kasu honetan ere, ez dago ez produktu ez herrialde nabariagorik.

Hondakinei dagokionez, **pestizidak %87,5a** dira eta medikamentuak %12,5a. Pestiziden kasuan, **barazkiak** inplikatuak daude kasuen %70an eta gehienak (%80,5) **asiarrak** dira.

ITURRIA	ZK	AGENTE	ZK (%)	PRODUKTU ERAGILEA	ZK (%)	JATORRIA	ZK (%)
<b>Mikotoxinak/Biotoxinak</b>	189	Aflatoxinak	155 (82%)	kakahueteak	57(37 %)	Asia	25 (44%)
<b>Kutsadura biologikoa</b>	163	Salmonella sp.	81 (29%)	haragia; espeziak; belar aromatikoak	ez dago produktu nabariagorik besteak baino		
<b>Kutsadura kimikoa</b>	99	Koloratzaile eta gehigarriak	38(39%)	espeziak, saltsak goxokiak,ozpinetakoak			
<b>Hondakinak</b>	217	Pestizidak	190 (87,5%)	barazkiak	133(70%)	Asia	106 (80,5%)
<b>Metal astunak</b>	52	Merkurioa	23 (44,5%)	marrazoa	9 (39%)	Espainia	5 (55,5%)